



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

PSIKOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE PSICOLOGÍA



PSIKOLOGIA FAKULTATEA

**Psikologia
Logopedia**

www.ehu.eus



Esploratu adimenaren, portaeraren eta giza-komunikazioaren mundu zirrargarria

Psikologia Fakultatearen helburua profesionalak prestatzea eta ezagutza sortzea eta zabaltzea da, pertsonen osasuna eta ongizate psikosoziala hobetzeko.

Graduko bi prestakuntza-programa eskaintzen dizkizugu, Psikologiako eta Logopediako prestakuntza teoriko-praktiko sendoa ahalbidetzen dutenak, bai eta graduondoko hainbat programa ere. Ondo prestatutako pertsonen talde konprometitu bat daukagu, abiapuntutzat duena berrikuntza, etengabeko hobekuntza, pentsamendu askatasuna eta espiritu kritikoa.



FAKULTATEA ZENBAKITAN

2
gradu
titulu


139
irakasle

4
master

20
profesional
administrazio eta
zerbitzuen arloan

1
berezko
titulu

1
doktorego
programa




Psikologia Fakultatea
Tolosa etorbidea, 70
20018 Donostia

943 018 297
psikologia@ehu.eus
www.ehu.eus/eu/web/psikologia-fakultatea

 [@psikoEHU](https://twitter.com/psikoEHU)

 [@psikoEHU](https://www.facebook.com/psikoEHU)

 [@psikoEHU](https://www.instagram.com/psikoEHU)

 [Psikologia Fakultatea / Facultad de Psicología](https://www.linkedin.com/company/psikologia-fakultatea/)

 [UPV/EHU](https://www.youtube.com/UPV/EHU)

 [UPV/EHU](https://vimeo.com/UPV/EHU)

GURE AZPIEGITURAK

Irakaskuntza-espazioak:

- 17 gela ikus-entzunezko ekipamenduekin
- 5 gela ordenagailuekin

Ikasleen erabilera autonomorako espazioak:

- 2 gela ordenagailuekin
- 2 irakurketa-gune
- 3 gune mikrouhin-labearekin

Beste espazio batzuk:

- Areto Nagusia
- Gradu Aretoa
- Hemizikloa
- Batzar Gela
- Erreprografia
- Kafetegia



**Presta zaitetz
pertsonen
osasunaren eta
ongizatearen
prebentzioan eta
esku-hartzean.**



MUGIKORTASUN PROGRAMAK

- 📍 **SICUE**
Espainiako unibertsitateak
- 📍 **ERASMUS +**
Europako unibertsitateak
- 📍 **Latinoamerika eta beste norako batzuk**



[Hemen](#) aurkituko duzu ikastegi honetako mugikortasun-programen informazio guztia.

IRAKASKUNTZA ELEANIZTUNA

- Psikologiako Graduan irakasgai guztiak euskaraz eta gaztelaniaz.
- Logopediako Graduan ikasketa-planaren eskaintza hirueleduna da.


UNIBERTSITATEKO PRAKTIKAK

- Psikologiako Graduan praktikek 18 kreditu dituzte.
- Logopediako Graduan praktikek 24 kreditu dituzte eta, gainera, ikasleen % 10ek prestakuntza dualeko ibilbidea egiteko aukera izango du.

GRADU AMAIERAKO LANA

- Nahitaezko jarduera bat da ikasleentzat, eta 6 kredituko karga bat du
- Helburua da ikasleak prestakuntza garaian eskuratutako gaitasunak azalaraztea
- Idatzizko lan bat da, ahoz azaltzen dena eta horretarako izendatutako epaimahai batek ebaluatzen duena

NON EMATEN DIRA GURE GRADUAK?



Bizi Gipuzkoako Campusa!



+10.000 ikasle



9 ikastegi



1 unibertsitate
egoitza

Ostatu zerbitzua:
ostatua aurkitzen
lagunduko dizugu



3 biblioteka



Kultura, musika eta
arte jarduerak



1 kiroldegi
Itunpeko kirol
zentroak



Ikasi hizkuntzak
Hizkuntza
egiaztagiriak



Enplegu Gunea



PSIKOLOGIAKO GRADUA

Jakintza adarra: Osasun Zientziak

Egungo gizartea etengabe ari da aldatzen, oso bizkor gainera, eta egoera berriak sortzen dira, eragile berriekin eta arazo mota desberdinekin. Psikologiak erantzuna ematen die eskaera hauei eta aurre egiten die erronka zoragarriei.

Psikologiako Graduan eskura izango dituzu giza portaera ulertzeko, interpretatzeko, aztertze eta azaltzeko tresnak. Horrez gain, oinarrizko trebetasunak eta gaitasunak garatuko dituzu norbanakoak eta gizartea ebaluatze eta horien esparruan esku hartzeko, pertsonen osasuna eta bizi kalitatea sustatze eta hobetze aldera.

Gizakia azertu nahi baduzu, gizarte errealitate anitzarekiko eta bertan dauden kultura desberdinekiko sentsibilitatea baduzu, eta pertsona arteko harreman egokiak sortzeko eta autokritika egiteko gaitasuna baduzu, Psikologiako Graduan dago zure lekua.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

- Oinarrizko prozesu psikologikoak gidatzen dituzten legeak eta printzipioak eta haien oinarri biologiko, sozial eta kulturalak ulertzeko.
- Psikologiaren aplikazio esparruak ezagutzeko eta gizabanakoaren, taldeen, komunitateen eta erakundeen osasuna eta bizi kalitatea sustatzeko beharrezkoak diren ezagutzak lortzeko.
- Maila pertsonal, profesional eta zientifikoan harreman eta komunikazio eraginkorra izateko, autonomiaz ikasteko eta bakarka zein taldean lan egiteko.

Irteera profesionalak:

Psikologiako Gradua proiektzio eta irteerarik gehien dituen graduetakoa bat da. Psikologia klinikoaren, hezkuntza psikologiaren, lanaren psikologiaren eta esku-hartze sozialaren arloetan jardutea ohikoena bada ere, beste hainbat aukera daude:

- Larrialdien kudeaketa
- Epaitegi eta auzitegietakoa lana
- Bizi kalitatea hobetzeko zerbitzuak, kultura zerbitzuak eta aisialdi zerbitzuak
- Aholkularitza bullying eta cyberbullying kasuetan
- Kirolaren psikologia, besteak beste, futbol taldeei aplikatua.
- Nazioarteko lankidetzaren programen diseinua
- Aholkularitza lantalde kolaboratiboetan



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko 54 kreditu + nahitaezko 6 kreditu)

1. lauhilekoa

- Eboluzioa eta Jokabidea
- Gizarte Psikologia
- Jokabide Neurozientziaren Oinarriak
- Psikologiako Metodologia
- Psikologiaren Historia

2. lauhilekoa

- Arreta eta Pertzepzioa
- Garapenaren Psikologia I
- Ikaskuntza eta Jokabidea
- Motibazioa eta Emozioa
- Nortasunaren Psikologia

BIGARREN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 12 kreditu + nahitaezko 48 kreditu)

1. lauhilekoa

- Datuen Analisia eta Diseinuak: Metodo Ez-esperimentalak
- Garapenaren Psikologia II
- Hizkuntzaren Psikologia
- Memoriaren Psikologia
- Taldeen Psikologia

2. lauhilekoa

- Hezkuntzaren Psikologia
- Pentsamenduaren Psikologia
- Psikologia Fisiologikoa
- Psikometria
- Psikopatologia

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 60 kreditu)

1. lauhilekoa

- Aholkularitza Psikologikoa
- Diseinuak eta Datuen Analisia: Metodo Esperimentalak
- Ebaluazio eta Diagnosi Psikologikoa
- Esku-hartze Psikosoziala
- Prebentzioa eta Esku-hartzea Hezkuntzan

2. lauhilekoa

- Gatazken Analisia eta Ebazpena eta Lankidetzak
- Lanaren Psikologia
- Neuropsikologiaren Oinarriak
- Osasunaren eta Mendekotasunen Psikologia
- Tratamendu Psikologikoak

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (hautazko 36 kreditu + Praktika Kurrikularretako 18 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 6 kreditu)

1. lauhilekoa

- Hautazko irakasgaien artean 6 aukeratu

2. lauhilekoa

- Kanpo Praktiak
- GRADU AMAIERAKO LANA

Hautazkoak (Laugarren maila)

- Adimen Emozionala eta Gaitasun Sozioemozionalak
- Ahozko Komunikazioa Akademiko-Profesionala Euskaraz
- Bizikidetzarako Hezkuntza
- Erakundeen Garapena eta Lan-osasuna
- Familiaren Psikologia
- Gaitasun Kognitiboak
- Giza Baliabideen Psikologia: Pertsonen Kudeaketa Erakundeetan
- Gradu Amaierako Lanaren Prestakuntzari Aplikatutako Metodologia
- Haur eta Gazteen Psikologia Klinikoa: Ebaluazioa eta Psikopatologia
- Idatzizko Komunikazio Akademiko-Profesionala Euskaraz
- Ikerketa Kalitatiborako eta Teknologia Digitalerako Tresnak
- Ingurumenaren eta Iraunkortasunaren Psikologia
- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Psikologia
- Kognizio eta Jokabide Terapia
- Kulturantzatasuna eta Aldaketa Soziala
- Psikofarmakologia
- Psikogerontologia
- Psikologia Juridikoa eta Forentsea
- Psikoterapia
- Publizitatearen, Kontsumoaren eta Osasunaren Psikologia
- Sexualitatearen Psikologia

Ikasle guztiek «Osasunaren Psikologia» aipamena jasoko dute gradua amaitzean. Aipamen hori ezinbestekoa da Osasun Psikologia Orokorreko Unibertsitate Masterrean matrikulatzeko.



LOGOPEDIAKO GRADUA

Jakintza adarra: Osasun Zientziak

Gaur egungo gizartea etengabe aldatzen ari da, eta abiadura bizian gainera, eszenatoki ezberdinak sortuz eragile berri eta arazo desberdinekin. Logopediak eskaera horiei eta erronka zirrargarrirei erantzuten die.

Gradu honek logopeda gisa hezitzen zaitu osasun-lanbide arautu honetan jarduteko beharrezko ezagutza zientifikoekin. Gainera, gaitasuna ematen dizu terapeutikoki esku hartzeko, diziplinaren berezko tekniken bidez, komunikazioaren eta hizkuntzaren nahasteak agertu daitezkeen bizitzako etapa guztietan.

Hizkuntzarekin eta komunikazio-nahasmenduekin lotutako gaiekiko interesa baduzu eta osasun-arloan laguntzeko bokazioa baduzu, zure aukerarik onena Logopediako Gradua da.

Gradu honetan onartua izateko, B2 mailaren baliokideak diren gutxieneko euskara- eta ingeles-mailak egiaztatu behar dira.

* Homologazioko izapidean.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

- Logopeda osasun-lanbide arautuan aritzeko
- Komunikazio- eta hizkuntza-nahasmenduak prebenitzeko eta esku hartzeko ekintzak diseinatu, inplementatu eta ebaluatzeko.
- Komunikazioaren eta hizkuntzaren nahasmenduak aztertu, ebaluatu, diagnostikatu eta pronostiko bat egiteko, diziplina anitzeko ikuspegi batetik.
- Maila pertsonalean, profesionalean eta zientifikoan modu eraginkorrean erlazionatzeko eta komunikatzeko, modu autonomoan ikasteko eta bakarka zein taldeka lan egiteko.

Irteera profesionalak:

Logopeda lanbidea banaka edo lanbide arteko taldeetan garatu ahal izango duzu, bai osasun-arloan, bai hezkuntza-arloan, bai gizarte- eta laguntza-arloan, adibidez:

- Ospitaleak, lehen mailako arretako zentroak eta beste osasun-zentro batzuk
- Zerbitzu soziosanitarioak, zentro geriatrikoak, eguneko zentroak
- Arreta Goiztiarreko Unitateak
- Hezkuntza bereziko ikastetxeak
- Kontsulta pribatuak
- Diziplinarteko laguntza-zentroak
- Komunikabideak
- Ahots- eta kantu-hezkuntzako ikastetxeak
- Logopediako profesionalen prestakuntza-zentroak
- Ikerketa-zentroak

IKASKETA PLANA

LEHEN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 60 kreditu)

1. lauhilekoa

- Hizketa eta Entzumen-Organoen Anatomia
- Hizkuntzalaritza Orokorra
- Jokabide Neurozientziaren Oinarriak
- Logopedia, Zientzia eta Lanbidea
- Metodologia Zientifikoaren Hastapenak

2. lauhilekoa

- Garapenaren Psikologia I
- Hizketa eta Entzumen-Organoen Fisiologia
- Hizkuntzaren Jabekuntza eta Garapena
- Logopediaren Hezkuntza Oinarriak
- Oinarrizko Prozesu Psikologikoak

BIGARREN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 24 kreditu + nahitaezko 36 kreditu)

1. lauhilekoa

- Ebaluazioaren eta Diagnosiaren Oinarriak Logopedian
- Garapenaren Psikologia II
- Hizkuntzaren Nahasmenduei Aplikatutako Hizkuntzalaritza
- Hizkuntzaren Psikologia
- Ikerketa Metodoak eta Datuen Analisia Logopedian

2. lauhilekoa

- Ahotsaren eta Entzumenaren Nahasmenduak: Ebaluazioa eta Diagnostika
- Degluzioaren eta Hizketaren Nahasmenduak: Ebaluazioa eta Diagnostika
- Eskuratutako eta endekapenezko hizkuntza-nahasmenduak: Ebaluazioa eta Diagnostika
- Hizkuntzaren eta irakurketa-idazketaren garapenaren nahasmenduak: Ebaluazioa eta Diagnostika
- Neuropsikologiaren Oinarriak

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 60 kreditu)

1. lauhilekoa

- Ahotsaren eta Entzumenaren Nahasmenduen Esku-hartzea
- Degluzioaren eta hizketaren nahasmenduen Esku-hartzea
- Esku-hartze Psikosoziala
- Hizkuntzaren eta Irakurketa-idazketaren Garapenaren Nahasmenduen Esku-hartzea
- Neurogarapenaren Nahasmenduak

2. lauhilekoa

- Beste Patologia Batzuekin Lotutako Hizkuntza-Nahasmenduen Neuropsikologia
- Esku-hartze Logopedikoa Arreta Goiztiarreen
- Eskuratutako eta Endekapenezko Hizkuntza-Nahasmenduen Esku-hartzea
- Komunikazioaren Sistema Alternatiboak eta Handigarriak
- Nahasmendu Logopedikoak Ingurune Eleaniztunetan

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (hautazko 30 kreditu + Praktika Kurrikularretako 24 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 6 kreditu)

FORMAKUNTZA EZ DUALA

1. lauhilekoa

- Hautazko irakasgaien artean 5 aukeratu

2. lauhilekoa

- Kanpo Praktiak
- GRADU AMAIERAKO LANA

FORMAKUNTZA DUALA

1. lauhilekoa

- «Entitateko Egonaldia» hautazko irakasgaia
- Hautazko irakasgaien artean 2 aukeratu

2. lauhilekoa

- Kanpo Praktiak
- GRADU AMAIERAKO LANA

Hautazkoak (Laugarren maila)

- Adimen Emozionala eta Gaitasun Sozioemotionalak
- Adinekoen Esku-Hartze Logopedikoa
- Ahozko Komunikazioa Akademiko-Profesionala Euskaraz
- Aurrerapenak Logopedian
- Gaitasun Kognitiboak
- Garapenaren Psikobiologia
- Gradu Amaierako Lanaren Prestakuntzari Aplikatutako Metodologia
- Hizkuntza Testuinguru Eleaniztunetan eta Kulturantzetan
- Idatzizko Komunikazio Akademiko-Profesionala Euskaraz
- Ikerketa Kualitatiborako eta Teknologia Digitalerako Tresnak
- Profesionalentzako Ahots-Teknika
- Zeinu-Hizkuntza



UPV/EHUren GRADUONDOKOEN ESKAINNTZA

Zure gradu-ikasketak amaitu ondoren, zure prestakuntza osatu ahal izango duzu graduondoko batekin. UPV/EHUk graduondoko 150 programa baino gehiago eskaintzen ditu zure etorkizun profesionala garatu nahi duzun alorrean espezializatu zaitezten.



Gure unibertsitateko masterrak eta berezko tituluak hemen kontsulta ditzakezu:
www.ehu.es/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak

Eskerrik asko Euskal Herriko Unibertsitatea aukeratzeagatik. Itxaroten dizugu.

Liburuxka hau informazioa emateko baino ez da.
Azken eguneraketa: 2023ko abendua.